

## Igeldo

# Igeldo, kultur topagune

Hilaren 28tik 30era bitartean, Musik@rte guneak antolatuta, IV. Musika Festa egingo da Igeldon. Hiru egunez, gaztetxo zein helduentzat kultur ekitaldiak izango dira.

Ostiralean, hilak 28, hasiko da aurtengo Musika Festa. 17.00etan hurrek adi-adi entzungo dituzte Itziar ipuin kontalari egitarrenaren istorio ederrak. Ondoren, txokolate jatea izango da. 22.30ean, Gilkitxaro antzerki talde bilbotarrak "Elevator" obra antzeztuko du. Hurrengo egunean, larunbatean, musika izango da protagonista. 18.00etan, Igeldo, Oiarzun eta Orioko musika eskolak ariko dira. 22.00etan, jaialdia izango da etxeko zein kanpoko taldeekin. Igeldoko Lezkari abesbatza eta Jo ta Jo perkusio taldearekin batera Pariak Bai musika talde zarauztarrak eta Ttakunpa



perkusio talde zestoarrak parte hartuko dute jaialdian.

### Bukatzeko, erromeria

Musika Festaren azken egunean, igandean, goizez zein arratsaldez izango da zer ikusi. 11.00etan, Nabarralde taldeak Nafarroaren historia eta etorkizuna izango ditu hizpide. Ondoren, poesia eta musika emanaldia izango da. 14.00etan, bazkari animatua izango da, bertsolariarekin eta

bestelako jolasekin. Eta aurtengo Musik@rteri amaiera ezin hobea emateko, erromeria izango da arratsaldean, herriko Ejunexama talde mundialarekin. Iker Dorronsoro antolatzaileetako batek esan digunez, "Urtean zenbait ikastaro egiten ditugu Igeldon eta Musika Festaren helburuetako bat hain zuzen ere, ikastarorietan parte hartzen dutenak plazara ateratzea da. Horrekin batera, ohiko dantza

### Urrezko Lapak Hernanira


Jon eta Manolo hernaniarrek ezustekoa eman zuten joan den ostiralean jokaturako Lapak Saria Mus Txapelketako azken jardunaldian eta txapelketa irabazi zuten. Bikote hau ez zegoen sailkapeneko goialdean lehen bi jardunaldiak jokatu eta gero. Hala ere, azken jardunaldian onenak izan ziren eta aurretik zituzten bikote guztiak gainditzeko adina puntu lortu zituzten. Juanjo Gabilondo eta Suso Etxaniz, Nicolas eta Migel Angel Izagirre eta Bladi Encina eta Koro Kalonge bikote igeldotarrak bigarren, hirugarren eta laugarren sailkatu ziren, hurrenez hurren.

*edo musika emanaldiak alde batera utzi, eta zer edo zer berritzailea ekartzen saiatu gara aurten ere. Igeldotarrak eta donostiar guztiak Musika Festa ikustera gonbidatu nahi ditugu".*

## Intxaurrondo

### Tenis pista bat gehiago

Mois kiroldegian hiru tenis pista egon beharrean, lau egongo dira. Laugarren pista jartzeko ez dute kiroldegia handitu beharrik izango. Egun hiru pista dauden lekuan lau pista sartzeko tokiak badago eta. Obra hauek astelehenean, hilak 24, hastekoak ziren. Hala ere, eraikuntzako langileen greba dela eta, ez dago jakiterik lanok noiz hasiko dituzten.



### Kantu jira

Lagunekin Kantari ekimenari amaiera emanez, Kantu jira eta Kantu afariak izango dira ostiralean, hilak 21. Kantu jira 20.00etan abiatuko da Larrotxenetik eta bertaratutako abesten letrak emango zaizkie. Kantu afaria, berriz, 22.00etan izango da Artzak Ortzeok elkartean.

